



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

**LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2012/2013 ikasturtea**


**MATERIAL BATEN AZTERKETA  
AUTOEZAGUTZAREN  
IKUSPEGITIK**

**Egilea: Leire Astoreka Anasagasti**

**Zuzendaria: Ana Arribillaga Iriarte**

**Leioan, 2013ko ekainaren 5ean**

  
ZUZENDARIAREN ONIRITZIA

  
EGILEAREN ONIRITZIA

## AURKIBIDEA

|   |    |
|---|----|
| Sarrera.....  | 5  |
| 1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera.....          | 7  |
| 1.1. Autoezagutza eta norberestimazioa.....                                       | 11 |
| 1.2. Autoezagutza, norberestimazioa eta adimen handiko haurrak.....               | 13 |
| 1.3. Gaur egungo gizartea eta eredu fisikoaren garrantzia.....                    | 14 |
| 2. Metodologia.....   | 15 |
| 2.1. Lagina.....  | 15 |
| 2.2. Lagin hori aukeratzearen arrazoiak.....                                      | 16 |
| 2.3. Azterketa metodologia.....   | 17 |
| 3. Lanaren garapena.....  | 17 |
| 4. Emaidak eta ondorioak.....   | 24 |
| 5. Erreferentzia bibliografikoak.....   | 26 |
| ERANSKINAK.....   | 29 |
| 1. eranskina. Zubia Santillanako “Familian bizi gara” unitate didaktikoa.....     | 30 |
| 1.1. eranskina. Liburuko 50.orrialdea.....  | 30 |
| 1.2. eranskina. Liburuko 51.orrialdea.....  | 31 |
| 1.3. eranskina. Liburuko 52.orrialdea.....  | 32 |
| 1.4. eranskina. Liburuko 53.orrialdea.....  | 33 |
| 1.5. eranskina. Liburuko 54.orrialdea.....  | 34 |
| 1.6. eranskina. Liburuko 55.orrialdea.....  | 35 |
| 1.7. eranskina. Liburuko 56.orrialdea.....  | 36 |
| 1.8. eranskina. Liburuko 57.orrialdea.....  | 37 |
| 1.9. eranskina. Liburuko 58.orrialdea.....  | 38 |
| 1.10. eranskina. Liburuko 59.orrialdea.....                                       | 39 |
| 2. eranskina. “Familian bizi gara” unitate didaktikoaren ariketa osagarriak ..... | 40 |
| 2.1. eranskina. Aurrezagutzen fitxa.....  | 40 |
| 2.2. eranskina. Fitxen portada.....   | 41 |
| 2.3. eranskina. Lehenengo fitxa.....  | 42 |
| 2.4. eranskina. Bigarren fitxa.....   | 43 |
| 2.5. eranskina. Hirugarren fitxa.....   | 44 |

|  |    |
|--|----|
| 2.6. eranskina. Laugarren fitxa.....                   | 45 |
| 2.7. eranskina. Bostgarren fitxa.....                  | 46 |
| 2.8. eranskina. Seigarren fitxa.....                   | 47 |
| 2.9. eranskina. Lehenengo ebaluazio fitxa.....         | 48 |
| 2.10. eranskina. Bigarren ebaluazio fitxa.....         | 49 |
| 2.11. eranskina. Hirugarren ebaluazio fitxa.....       | 50 |
| 3. eranskina. Gaia klasean lantzeko planifikazioa..... | 51 |

# MATERIAL BATEN AZTERKETA AUTOEZAGUTZAREN IKUSPEGITIK

**Leire Astoreka Anasagasti**

UPV/EHU

Autoezagutzak duen garrantzia ikusita, eskola ingurunean hau nola lantzen den aztertzea da lan honen helburu nagusia. Horretarako, nik neuk unitate didaktiko baten osagarri modura sortutako ariketa batzuk aztertuko dira lanean, lehen hezkuntzako lehenengo mailako ikasleei zuzendutakoak. Hasiera batean ariketa hauek sortzerakoan motibazioa eta ikaskuntza esanguratsua kontuan izan nituen arren, kontsideratuz autoezagutzak umeen garapenean duen garrantzia, ikuspegi honetatik egindako lanaren berrikuspena egingo da lan honetan, proposamen berriren bat ere gehituz.

*Autoezagutza, autoestima, hezkuntza, eskola, irakasleak*

Viendo la importancia que tiene el autoconocimiento, el objetivo principal de este trabajo es analizar cómo se trabaja este concepto en el entorno escolar. Para eso, serán analizadas unas actividades que creé para complementar una unidad didáctica dirigidas a estudiantes del primer curso de educación primaria. Aunque al principio en los ejercicios propuestos tuve en cuenta la motivación así como el aprendizaje significativo, considerando la importancia que el autoconocimiento tiene en el desarrollo del alumnado, en este trabajo se van a revisar los ejercicios desde esta nueva perspectiva. Finalmente, haciendo alguna nueva propuesta.

*Autoconocimiento, autoestima, educación, escuela, profesores*

Considering the importance of self-concept, the main aim of this assignment is to analyse how this concept is handled in the school environment. In order to do so, some activities which I created to complement a unit for students in their first year of primary education will be analysed. While initially the proposed activities dealt with motivation and significant learning, in view of the importance of self-concept in child development, they have been revised focussing on this new point of view. Finally, some new proposals have been made.

*Self-concept, self-esteem, education, school, teachers*

## Sarrera

Emerick-ek (1992:144) adierazten duenez:

Ikasketan dirauten esperientzia desatsegin guztiek ikasleen jarrera negatiboa ekarri ohi dute. Eta ez dakarte bakarrik jarrera negatiboa eskolarengan eta ikasketarengan baina baita norberari dagokionez ere -norbere interesen garapenean, jarreran eta autokontzeptu akademikoan-; gainera, motibazio ohitura txiro eta eskasa ere ekarri ditzakete esperientzia desatsegin guzti horiek.

Baieztape hau irakurrita, eskolak eta hezkuntzak ikasleengan duen eragina norainokoa izan daitekeen aztertzea narama. Hala ere, eskoletan, irakasle modura, hurrei autoezagutzan nola lagundu diezaiekegun ikasi nahi dut. Hau izan zen Gradu Amaierako Lana burutzeko autoezagutzaren gaia aukeratzearen arrazoietakoa bat. Izan ere, pertsonen eguneroko bizitza eragin eta baldintzen du autoezagutzak eta hezkuntzan bere lekua izan beharko lukeela deritzot.

Umeen jarrera eta beraiek egiten dituzten ekintzak behatu eta aztertzea asko gustatzen zaidan zerbait denez eta hurrek egiten dutena zergatik egiten duten ulertzeko autoezagutza ezinbesteko kontzeptua denez, gai hau aukeratzeko interes handia nuen.

Norbere buruarekin ondo sentitzea oso garrantzitsua da eta hainbat onura ekarri ditzake gure eguneroko bizitzara; gure buruaren balorapena osasun mentalaren iturri da. Gainera, umeak txikiak direnean, bere hurbilekoek beraiengan dituzten iritzi eta balorapenen arabera eraikitzen dute beraien autoezagutza eta autoestima. Hori horrela, eskolak berebiziko garrantzia du eta hurrengan autoestima positiboa garatzen lagundu beharko luke.

Hau guztia jakinik, egunerokotasunean eskolan erabiltzen diren liburuek umeen autoezagutzan zer eragin duten aztertzea gustatuko litzaidake. Horrez gain, unitate didaktiko baten osagarri moduan ariketa batzuk proposatu nituen pasadan urteko praktiketako garaian eta hauek banan banan aztertzen joan eta nire ezagutza berri eta sakon batetik umeen autoezagutzan nola eragin dezakeen aztertu nahi dut. Horregatik, ezagutza berri eta sakon hori lortzeko, lehenik eta behin autoezagutza definitu eta aztertu behar dut.

Gustatuko litzaidake azpimarratzea, norberarentzat garrantzitsua edo adierazgarria ez den ekintza batek beste pertsona bati sekulako mesedea egin diezaiokeela autoestiman.

Hau da duela hilabete izandako esperientziak irakatsi zidana. Indian egon nintzen hogei egunetarako eta Vicente Ferrer Fundazioan igaro nituen hiruzpalau egun.

Indian Kasta izeneko estruktura hierarkiko bat existitzen da, maila sozialarekin erlazionatu daitekeena, berdina ez den arren. Kasten hierarkia hori purutasunarekin erlazionatuta dago, puruenak kasta altuetakoak izanik. Kasta baxuenekoak txirotasunean bizitzera daude bideratuta eta horrez gain, mespretxu absolutuan. Legeak, estatu demokratikoaren sorkuntzarekin, diskriminazioa indargabetu zuen. Hala ere, errealitateari erreparatzen badiogu, desberdintasunek berean jarraitzen dute.

Vicente Ferrer Fundazioaren lana kasta baxuko biztanleetan zentratzen da. Hauek sozialki gutxien errekonozituta dauden lanak egiten dituzte eta marjinazioa sufritzen dute, gainera. Horregatik, ONGak osasunean, hezkuntzan, etxebizitzetan... laguntza eskaintzen die. Horrez gain, emakumeek leku berezi bat daukate fundazioan, beraien egoera Indian bereziki zaila delako.

Beraz, emakumeentzat Vicente Ferrer Fundazioak eman dieten aukera, beraien bizitzako aukera da. Izan ere, fundazioan fularrak eta eskulanak egiten irakasten dizkiete eta horrek soldata bat irabazteko aukera eman ez ezik, gizartean ere leku bat ematen die, autonomia sustatuz. Argi dago beraz, emakume hauen kasuan lan bat egiteko aukera izateak beraien autoestiman izan dezakeen eragina izugarria dela.

Horrez gain, ezintasunen bat dutenentzako lekua ere badago fundazioan. Hauek ere, beraien moduko beste ume batzuk daudela ikusi, komunikatzen ikasten dute eta beraien autoestiman ere eragin oso handia dagoela esatea ukalezina da. Indianitsuak direnak, edota gorra direnak... familiarentzat oztopo moduan baino ez baitira hartzen.

Vicente Ferrerrek esan zuenez “nire lana ezinezko ametsak lortzea da”. Eta lortutakoa benetan lortzea ezinezkoa dela esango zukeen edonork; Indiako kasta baxuko emakumeak “ezer” izatetik, ekonomikoki eta pertsonalki autonomoak izateko bidea zabaldu baitie.

Nik urteetan zehar autoezagutza zein autoestiman izan dudan interesaz gain, azkenaldian bizitako esperientziak lan hau burutzeko motibazioa oraindik gehiago piztu didate.

## **1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera**

Autokontzeptuak guk geure buruaz dugun irudi eta iritziarekin du zerikusia, pertsona bera norbere obserbazioen objektu bihurtzen delarik. Garenaren, izan nahi dugunaren eta erakusten dugunaren irudien nahaste bat dela esan daiteke (Gonzalez eta Tauron, 1992); norberak beregan duen autopertzepzioa (Harte, 1990). Prozesu aktiboa da, ez daukagu jaiotzetik eta gure garapenean zehar eraikitzen doa, prozesu luzea izanik. Autokontzeptua aldakorra da; alde batetik, adinarekin aldatzen diren gaitasunengatik eta bestetik, bizitako esperientziengatik.

Autokontzeptua txikitatik definitzen doa, hala ere, umetan (6-12 urte) eta gaztetan garatzen da gehien, beraien gaitasunak ingurukoekin konparatzen direnean. Hasieran, eskola eta familia dira umeengan influentzi gehien eragiten dituztenak eta haurrak handitu ahala, 6 urte inguruan, lagunek ere rol garrantzitsu bat jokatzen dute, egoera sozial berrietan parte hartzen hasten diren era berean. 1902an Cooleyk esan zuenaren arabera (González O.-n 2011:29), “umearentzat pertsona esanguratsuak direnek rol garrantzitsua jokatzen dute beraiengatik. Izan ere, hauek pentsatzen dutenaren arabera eraikitzen dute besteek beraiengan duten ikuspegia eta baita beraien ikuspegi propioa ere. Hori horrela, autoezagutza sozialki eraikita dagoela esan daiteke”. 7-8 urteetatik aurrera, norbere lagunak, klase-kideak eta abar etengabeko konparaketak egiteko iturri bihurtzen dira. Gaztetasunera heltzen goazen heinean, kideen balorazio eta iritziek eragin handiagoa dute norbere autoezagutza eta autoestiman.

Gogoan izan behar da ikasleen autoezagutzan eta autoestiman garrantzia hartzen duela erabiltzen den ikasketa metodoak. Era berean, irakaslea eta honek ikasleengan hartzen duen jarrera ere esanguratsuak izan daitezke. Izan ere, ume batek bere burua baloratzeko, bere ingurukoek baloratzen dutela sentitu behar du.

William Jamesek (1890/1963), psikologian aditua izan zenak, baieztatu zuen autokontzeptua dimentsioanitzak zela. Hala ere, urte batzuk pasatu diren arte ez da autoezagutza horrela ikusi. Izan ere, laurogeigarren hamarkadara arte autokontzeptua globalizat eta dimentsio bakartzat ulertua izan da.

Hirurogeita hamargarren hamarkadan, Shavelson, Hubner eta Stantonek (1976) hainbat ikerketa egin ostean, autokontzeptu dimentsioanitzak eta hierarkikoa onartu zen. Hauek autokontzeptu globala autokontzeptu akademikoan eta autokontzeptu ez-akademikoan

banatu zituzten. Autoezagutza ez-akademikoaren barruan autoezagutza soziala, fisikoa eta pertsonala ezberdintzen zituztelarik.

Beraz, autoezagutza globala eduki psikologiko dimentsioan itza dela esan dezakegu: autoezagutza fisikoa, autoezagutza akademikoa, autoezagutza soziala eta autoezagutza pertsonala desberdinduz.

Umeen kasuan, autokontzeptua globala balitz bezala ikusten dute eta gaztarora hurbiltzen doazen heinean, autoezagutzaren dimentsioak ezberdintzen doaz.

Autoezagutza akademikoa: Norberak ikasle moduan bere burua nola ikusten duenari egiten dio erreferentzia. Shavelson, Huebner eta Stantonek diotenez, azpimultzo ezberdinetan banatzen da: hizkuntzak, matematika eta beste ikasgaiak. Ingurune eskolarrak eragin zuzena du ikasleen autoezagutza akademikoan eta klase-kideak eta irakasleak ere funtsezko iturri dira.

Autoezagutza pertsonala: Norberak bere burua ezagutzeko gaitasuna adierazten du.

APE (Cuestionario Experimental de Autoconcepto Personal) galdeketaren laguntzaz autokontzeptu pertsonala neurtu daiteke. Hori horrela, bere dimentsioak ere bertatik ezberdindu daitezke:

1. Autonomia: Norbera nola sentitzen den besteekiko berdina baina ezberdina, era berean, dela jakinik.
2. Zintzotasuna: Gutako bakoitzak bere burua nola ikusten duen "pertsona on" moduan.
3. Autokontzeptu emozionala: Pertsona bakoitzak bere burua nola sentitzen duen dimentsio emozionalean.
4. Bizitzan proposatutakoa betetzea: Norberak proposatzen duena betetzen duela sentitzea.

Hala ere, kontuan hartu behar da galdeketen erantzunen faktore analisek ez dituztela lau dimentsioak argi eta garbi baieztatzen. Horregatik, autokontzeptuaren dimentsio honetan analisi gehiago egitea beharrezkoa izango litzateke.

Autoezagutza soziala: Besteekin harremanetan jartzeko gaitasunari egiten dio erreferentzia, bai taldekideekin zein guraso eta nagusiekin.



Byrne eta Shavelson (1996) egindako galdeketa arabera autokontzeptu sozialaren banaketa: autokontzeptu soziala eskolan eta autokontzeptu soziala familian izango litzateke eta horietako bakoitzean, parekideekin eta nagusiekin dagoen autokontzeptu soziala desberdinduko lirateke.

Hala ere, analisi eguneratuagoek autokontzeptu soziala bi dimentsiotan banatzen dute, AUSO (Cuestionario de Autoconcepto Social), (González eta Goñi, 2005; Fernández eta Goñi, 2006), galdeketaekin egindako hausnarketek diotenez. Lehenengoa, erantzukizun soziala izango litzateke eta pertsona bakoitzak egiten duen ekarpen sozialaren pertzepzioari egiten dio erreferentzia. Bigarrena, aldiz, konpetentzia soziala deritzoguna da, pertsona bakoitzak gizarteko egoeretan zabaltzeko duen autopertzepzioa eta pertsona bakoitzak besteen erreakzioa norberegana nola hautematen dituen aztertzen ditu.

Autoezagutza fisikoa: Alderdi fisiko eta gaitasun fisikoan dago banatuta Harterrek (1983) ziurtatzen duenaren arabera; autokontzeptu fisiko onak norberaren itxura fisiko egokiaz gain, eremu fisikoko beste zenbait atalekin du zerikusia: trebetasuna, sasoi, indarra...

Urte gutxi batzuk geroago, Fox eta Corbinek (1989) beraien ereduaz ezagutzera eman zuten, non autokontzeptu fisikoa lau azpidimentsiotan banatzen zuten:

1. Erakargarritasun fisikoa: norbere itxura fisikoaren pertzepzioa da; norbere itxurarekin ondo sentitzea.
2. Egoera fisikoa: erresistentzia eta energia; konfiantza norbere egoera fisikoarengan.
3. Indarra: norbere burua fuertetzat ikusi eta fuerte sentitzea; pisua altxatzeko gaitasunarekin sentitzea.
4. Kirol gaitasuna: kirolak ikasteko gaitasuna; segurtasun pertsonala eta jarrera positiboa kirol berriak ikasteko.

Fox eta Corbinen ereduaz oinarrituta, Physical Self-Perception Profile (PSPP) galdetegia egin zen.

Ezadostasunak zirela eta, PSPPa oinarritzat hartuz, galdetegiak sortu ziren bai euskaraz eta bai gaztelaniaz ere: Goñi, Ruiz de Azúa eta Rodriguezen (2006) el Cuestionario de Autoconcepto Fisiko (CAF) eta Esnaolaren (2005) Autokontzeptu Fisikoaren Itaketa (AFI). Bi galdetegiak Fox eta Corbinen erudian oinarrituz sortu ziren. Hala ere, kirol gaitasuna gaitasun fisikoa terminoagatik aldatu zuten.

Hori horrela, azken ikerketek diotenez, Goñi, Ruiz de Azúa eta Rodriguezen (2006) eta Esnaolaren (2005) ereduaren arabera autoezagutza fisikoa honako dimentsioetan banatzen da: gaitasun fisikoa, egoera fisikoa, erakargarritasun fisikoa eta indarra.


1. Erakargarritasun fisikoa: norbere itxura fisikoaren pertzepzioa da; norbere itxurarekin ondo sentitzea.
2. Egoera fisikoa: erresistentzia eta energia; konfiantza norbere egoera fisikoarengan.
3. Indarra: norbere burua fuertetzat ikusi eta fuerte sentitzea; pisua altxatzeko gaitasunarekin sentitzea.
4. Gaitasun fisikoa: kirola egiteko gaitasun eta ezaugarrien pertzepzioa; kirolak ikasteko gaitasuna; segurtasun pertsonala eta jarrera positiboa kirol berriak ikasteko.

Autokontzeptu ona izateak abantaila ugari ditu; autokontzeptu fisikoak garrantzia handia du, bai maila pertsonalean (poztasuna, oreka emozionala...) eta besteekiko harremanetan ere (trebetasun sozialak...).

Autoezagutza, beraz, globalizat eta dimentsio bakartzat hartu izan da orain gutxira arte eta ordutik gaur arte, bere dimentsioak berdin mantendu diren arren, azpidimentsioetan hainbat aldaketa eman dira, arestian aipatu dudanez. Hori horrela, planteamendu orokorrago bat egiteagatik, landutako guztia laburtzen saiatu naiz eta autoezagutza globalaren banaketa bat proposatu dut nik, 1.irudian ikusi daitekeena. Banaketa hau egiterakoan, ikerketa eguneratuenak hartu ditut kontuan.

Aipatu beharra daukat autoreek autoezagutza globala autoezagutza akademikoan eta ez akademikoan ezberdintzen dituztela. Hori horrela, autoezagutza fisikoa, soziala eta pertsonala autoezagutza ez akademikoaren barruan egongo lirake. Hala ere, nik proposatzen dudana banaketan, autoezagutza akademikoa, fisikoa, soziala eta pertsonala denak maila berean jarri nahi izan ditut. Nire uste apalean azpidimentsio hauek guztiek

autoezagutza globalean sortu dezaketen eragina berdintsua izan daitekeelako, denak baitira garrantzitsuak maila berean.



1.irudia. Autoezagutza globalaren dimentsioaniztasuna

### 1.1. Autoezagutza eta norberestimazioa

Autoezagutza eta norberestimazioa lotura duten bi kontzeptu desberdin dira. Autoezagutza deskribapen bat dela esan daiteke eta autoestima, aldiz, balorazio bat. Bietan du alde emozionalak eragina baina autoezagutza arrazionala ere bada.

Hortaz, autoezagutzak guk geure buruaz dugun irudi eta iritziarekin du zerikusia eta autoestima, aldiz, norberak bere buruaz egiten duen ebaluazioa izango litzateke, hau da, norberak nola baloratzen dituen bere gaitasun eta konpetentziak. Hori horrela, denborarekin autoestima aldatzen joan daiteke.

Norbere autoestimaren ekarpen pertsonala ez da mugatzen norberak datu errealetatik ateratzen dituen ondorioetara, norberak aukeratzen baitu non jartzen duen arreta berezia

eta zer den norberarentzat garrantzitsua. Hori horrela, autoestima ez dator puntuaketengatik bakarrik zehaztuta, norberak eduki bakoitzari ematen dion garrantziagatik baino.

Autoestima positiboa eta negatiboa izan daiteke. Datu errealetatik norbere nahietara dagoen distantzia txikia bada, autoestima positiboa izango da. Aldiz, lortu duguna gure helburuetatik urrun dagoela sentitzen dugunean, autoestimak negatiboa izateko joera du.

Autoestimuak hainbat gauzetarako balio digu: talde bateko kide bezala sentitzeko, oztopoei aurre egiteko gai izateko, norbere ezaugarri eta ahalmenak adierazteko, lorpenak azaltzeko, gure gorputza zein izaera den bezala onartzeko, norbere burua maitatzeko, gure burura defendatzeko, laguntza eskatzeko gai izateko, garena izateaz harro egoteko eta abar.

Esan daiteke *autoestima base* eta *autoestima barométrica* ditugula. Alde batetik, *autoestima base* deritzoguna determinatzaile batzuekin erlazionatuta dago: hezkuntza familiarra non arauak dauden, erlazio afektiboak, etengabeko elkarrizketa, errespetua eta elkarrekiko onarpena. Honek guztionek umeengan autoestima altuagoa garatzen laguntzen du. Beste aldetik, *autoestima barométrica* delakoak (Demo eta Savin-williams, 1992; Harter, 1998), momentu desberdinetan norbera nola sentitu daitekeenari egiten dio erreferentzia, bizipen ezberdin horiek ere berebiziko garrantzia izanik.

Hoge, Smit eta Hanson-ek egindako ikerketa batzuen arabera, ikasturtean zehar autoestima positiboa garatu ahal izateko, eskola, ingurune familiarra eta inteligentzia ezinbesteko faktoreak dira.

Umeak alderdi ezberdinetan baloratzen diren era berean, balorapen global bat garatzen doaz eta autoestima global hau 7-8 urteetan garatzen da. Horregatik, familien, eskolaren eta gizartearen ardura da haurrei aukerak, praktika, motibazioa eta ingurune egoki bat eskaintzea ume bakoitzaren garapen totala errazteko. Gainera, kontuan hartu behar da ume guztietan emaitza bera lortzeak ez duela esan nahi ume guztiekin izandako portaera berdina izan denik. Era berean, irakaslearen portaera ikasle guztiekin berdintsua izateko ez du esan nahi hauen emaitzak ere berdintsuak izango direnik. Pertsona bakoitzak bere ingurua modu bakarrean sentitzen duela da honen arrazoia.

Autoezagutza eta autoestima balore dezisiboak dira ikaskuntzan. Ikasle bakoitzak bere buruaz duen balorazio eta kontzeptuak ikaskuntza prozesuan eragina izango dute.

Arrazoi horregatik, irakasleak ikasle guztien ezaugarriak ezagutzeaz gain, ikasle bakoitzak norbere buruaz jakintza egoki bat lortzen erraztu behar du eta baita autoestima positiboaren garapena bultzatu ere.

Eskolan klima egoki bat izateak eragin zuzena izan dezake ikasleen autestiman; ikasleak motibatzeke erabiltzen diren teknikak, arauak eta jarrerak ikasleen autoestima positiboa garatzen lagundu dezakete.

Irakasleak duen jarrerak ere, ikasleengan influentzia izan dezake. Hori horrela, irakaslea inplikatzeko denean, laguntzen duenean, ordena mantentzen duenean eta berritzailea denean, autoestima positiboa bultzatu ohi da ikasleengan. Alderantzizkoa gertatzen da irakasleak kontrol zehatza daramenean. Sarritan, emaitza baxuak dituzten ikasleei ez zaie egiten duten esfortzua errekonozitzen eta honek, beraien ikasteko gogoia eta gauza berriak ikasteko kuriositatea zapuzten ditu.

Ezin dugu ahaztu munduaren pertzepzioa norberak nola prozesatzen duenaren arabera dela eta horregatik dela gutako bakoitza gizaki ezberdin bat.

Adituak oso interesatuta daude galdeketa egoki sortzean. Lehenengo autoezagutza zein autoestimaren dimentsio ezberdinak ondo definitu ahal izateko eta azkenik, bi kontzeptu hauek pertsonengan hobetzeko tresnak eta materiala sortzeko.

## **1.2. Autoezagutza, norberestimazioa eta adimen handiko haurrak**

Adimen handiko hurrei dagokienez, gezurra dirudien arren, posiblea da maila akademikoan porrota jasotzea. Izan ere, adimena baino garrantzitsuagoa da autoezagutza. Hori horrela, adimen handiko pertsona batek bera zer den ez jakiteak eta besteengandik ezberdina sentitzeak maila akademikoan porrota ekarri dezake.

Adimen handiko pertsonen maila akademikoan eragina izan dezaketen faktoreen artean hurrengoak daude:

- Faktore intrapertsonen artean: porrotari eta arrakastari beldurra, gauzak perfektu egiteko nahia, autopertzepzioa eta motibazioa.
- Kanpoko faktoreei dagokienez: gizarteko presioa, gaitzespen soziala, familiakoak eta eskola.

Faktore hauek dira motibazioa handitu edo txikituko dituztenak adimen handiko haurren.

Gainera, posiblea da adimen handiko pertsona izan eta autoezagutza maila horretan txarra izatea, kontutan hartu behar baita hartzailearen interpretazioa. Izan ere, pertsona bat besteengandik ezberdina ikusten eta sentitzen denean, normala da pertsona hori arraro sentitzea eta zerbaitek beregan funtzionatzen ez duela sentitzea. Gainera, ingurukoek forma esplizitu zein inplizituan onartu ez izateak ere txarto sentitzea ekarri dezake.

Adimen handiko haurrak txarto sentitu ez daitezen garrantzitsua da beraiek zer diren jakitea eta zergatik diren besteengandik ezberdinak ulertzea. Izan ere, beraien behar berezi psikologiko zein hezkuntzakoak kontuan izateak berebiziko garrantzia du.

Hau guztia kontuan ez izateak eskolan porrota ekarri ez ezik, isolamendu soziala ere ekarri dezake.

Beste alde batetik, hezkuntzak dituen ezaugarrien eraginez, baliteke adimen handiko haurrak klasean aspertu, motibazio ezera heldu eta horren eraginez eskolan porrota jasotzea. Horrek guztiorrek umearen autoestima akademiko txarra ekarri dezake.

Haurraren ingurukoek ume horretaz duten interes eta jakintzek ere bere autoezagutza eta autoestiman dute eragina. Izan ere, oso garrantzitsua da umearen interesak eta gaitasunak jakitea haurrak motibatu daitezen.

### **1.3. Gaur egungo gizartea eta eredu fisikoaren garrantzia**

Gure kulturen eta gizartean autokontzeptu fisikoan eragin negatiboa eragiten duten hainbat faktore daude. Egungo gizartean itxura fisikoak izugarritzko garrantzia du, gorputz liraina eta argalaren eredu nagusitzen delarik. Hori horrela, jende askok bere gorputza onartzeko arazoak ditu, ez dago pozik berarekin eta atsekabeko sentimenduak sortzen zaizkio. Eskolatik eragin horri aurre egin daiteke, baliabide eta neurri egokiak bideratuz. Era honetan ikasleei beraien buruez autopertzepzio fisiko egokia eraikitzen lagunduko diegu, autokontzeptu fisikoa moldagarria baita eta hobetu baitaiteke. Honetarako, jarduera fisikoko eta ohitura osasuntsuak sustatzeko egitasmoak bultzatu daitezke, ariketa fisikoaren onurez informazioa zabaldu, bakoitzaren gaitasun eta muga

fisikoak ezagutu, kirol jarduera sustatu, helburu berriak ezartzera animatu eta motibatu... Izan ere, jarduera fisikoak egoera animikoan eta autokontzeptu fisikoan du eragina, kirola erregulartasunez egitea osasun mental egokirako gakoa da, kirola eginez autodiziplina garatzen da, antsietate maila jaisten da...

Bizi-estilo osasuntsua zer den jakitea ere garrantzitsua da, honek autokontzeptu fisiko hobea baitakar berarekin. Kirol jarduera, elikadura ohitura orekatua eta atsedean eta lo ohitura egokiak egongo lirateke bizi-estilo osasuntsua duen pertsona baten egunerokoan.

Presio soziokulturalagatik, hainbat pertsonen bere gorputza moldatzeko neurri kanpoko gogoak sortzen zaizkie eta zenbait kasutan arazo psikikoak eragiten dira. Gainera, norbere itxura fisikoagatik sentimendu negatiboak izateak eta deseroso sentitzeak elikadura arazoak ere ekarri ditzake. Hau da, hain zuzen, gaur egun gero eta jende gehiagori eragiten dion arazoa eta kasu batzuetan 9-10 urteko haurretan ere eman dena. Autoestima fisikoak arazo hauek detektatzen lagundu dezake. Izan ere, elikadura arazoak dituzten ume, gazte zein helduek autoestima fisiko kaxkarra izan ohi dute.

Hortaz, esan daiteke ongizate pertsonalak eta autoestima positiboak, gaur egungo gizartean, lotura zuzena duela fisikoarekin. Gizarteak fisikoari ematen dion garrantziak ez du norbere gorputza onartzen laguntzen eta sarritan anorexia, bulimia eta abar bezalako arazo larriak ematen dira. Horregatik eskolan eta ingurukoek autoezagutza eta autoestima fisiko positibo bat eraikitzen lagundu behar dute.

## **2. Metodologia**

### **2.1. Lagina**

Lehen hezkuntzako irakasle izateko ikasketetan burutu behar izan ditugun practicum-ak Gernika-Lumoko San Fidel ikastolan egin ditut. Pasadan urteko kurtso hasieran, lehen hezkuntzako lehenengo mailako ikasgela batean egin nituen hiru hilabete.

Haurrentzako material berria asmatzea zen nire lana. Hala ere, kontuan hartu beharreko hainbat aspektu zeuden. Alde batetik, ikasleak ez zeuden oraindik ohituta lehen hezkuntzan erabiltzen zen metodologiara, liburuetara eta ikasgelaren banaketara. Horregatik, sortutako materialak beraien dinamika ez apurtzea nahi nuen. Beste aldetik, asmatutako materiala beraientzat erakargarria izatea eta umeek zerbait berria ikastea nuen helburu.

Hau guztia jakinik, ingurunearen ezaguera arloa lantzeko erabiltzen zuten Zubia Santillanako liburua hartu eta aztertu egin nuen. Nire aburuz, familia lantzen zen gaian gabezia izugarri bat zegoen. Izan ere, bertan agertzen ziren familia guztiak ama, aita eta seme-alabez osatutakoak ziren.

Klasean landu beharreko hurrengo gaia zenez, eta kontuan hartuz klaseko dinamika apurtu nahi ez nuela, aproposa iruditu zitzaidan gaia hartu eta familia eredu ezberdinen inguruan lan egitea. Hori horrela, gaiari zenbait helburu gehitu eta horiek betetzeko ariketak (ikus 2. eranskina) sortu eta proposatzea bururatu zitzaidan. Helburuen artean honakoak ezarri nituen: familia eredu ezberdinak ezagutu, familia eredu ezberdinen inguruko irudi egoki eta positibo bat eduki eta familia eredu ezberdinak identifikatu eta hauei buruz hausnartu.

Sortutako ariketa horiek lan honetarako erabilgarriak direnez, lagin moduan hauek erabiltzea erabaki nuen.

## **2.2. Lagin hori aukeratzearen arrazoiak**

Ariketak sortu nituenean, arestian aipatutako helburu horiek gehitzearen arrazoia, gaur egun familia eredu ezberdin asko daudela eta hauek ezagutu eta errespetatu egin behar direla da. Zubi Santillanako ingurunekeo liburuan ez da honen inguruko ezer lantzen eta guztiz garrantzitsua ikusten nuen honen inguruan umeekin hitz egitea. Izan ere, badaude hainbat ume txarto sentitu daitezkeenak ama bat edo aita bat ez dutelako, edota izekorekin bizi direlako eta abar, eta hau guztia normaltzat hartzen badugu denok, normala baita, denok pozago biziko garela uste dut, batez ere umeen kasuan.

Nire aburuz, irakasleek askotan ez dituzte gai hauek lantzen beldurregatik, askotan ez baitakizu umeen etxeko egoera zein izan daitekeen. Nire iritziz, kontu handiz, baina



landu egin beharko litzateke. Gai hauek landuz umeek asko ikasi dezaketela uste dut eta baita pertsona moduan hazi ere, besteak entzuten ikasiz eta, nola ez, besteak eta besteen egoera ezberdinak errespetatuz.

Hori horrela, lan hau burutzeko lagin moduan nik sortutako material berri hori hartu eta ikasleenganako eragina, autoezagutzari dagokionez, zer nolakoa izan zitekeen aztertzea nire etorkizunerako erabilgarria izan zitekeela pentsatu nuen. Gainera, beste material bat hartu baino, nik neuk sortutakoa hartzea eta horrekin lan egitea motibagarriagoa iruditu zitzaidan. Eta horregatik aukeratu nuen lagin hau.

Erakargarria iruditu zitzaidan nik egindako lan batek umeen autoezagutzan zer eragin eduki ahal izan duen aztertzea. Eta baita diseinatutako material horrek nola lagundu ahal dien beraien autoezagutzan ikustea.

### **2.3. Azterketa metodologia**

Autoezagutzaren gaineko informazioa jaso eta landu ondoren, laginari tratamendu kualitatiboa eman diot. Hau da, nik sortutako ariketetatik abiatuz, lana aztertzen joan naiz, nik autoezagutzaz dudak formakuntza gehiago honetatik. Hori horrela, ariketetako bakoitzean ikasleen autoezagutzaren barnean zein azpidimentsio lantzen diren eta zeintzuk lantzen ez diren aztertu dut.

Etorkizun batean nire erreflexio hauek umeen autoezagutzaren hobetze prozesuan duten eragina errealitatean zein den aztertzea gustatuko litzaidake, azterketa kuantitatiboago baten bitartez.

## **3. Lanaren garapena**

Lehen hezkuntza lehenengo mailako Zubia Santillanako ingurunearen ezaguera arloko liburuaren bosgarren gaiaren izena “Familian bizi gara” da (ikus 1. eranskina). Unitatearen gaia familia da eta unitatea lantzen denean Gabonak hurbil daudenez,

ospakizun hau ere lantzen da. Liburuak dioenez, “unitate honetan edukiek familiako kideen arteko afektibitate- eta bizikidetzaharremanei buruz hausnartzea eragiten du.”

Baieztapen hau irakurri nuenean ez nengoen guztiz ados eta hori benetan bete dadin, ariketa ezberdinak sortu nituen non ikasleei familia eredu ezberdinak azaltzen zaizkien eta gaur egungo egoera zein den hausnartzen duten.

Izan ere, eskoletan umedun familien kontua lantzen denean erabiltzen den metodologiak gu guztiok inguratzen gaituen errealitatea islatu beharko luke eta ez litzateke soilik familia eredu tradizional bakar batean oinarritu behar, gaur egun eredu horrekin batera beste familia eredu alternatibo eta desberdinak ere badaudelako. Sortzen ari diren familia eredu berri horiek ezagutu eta onartu egin behar dira, familia horien barnean bizi diren adingabeek onespenez edota porrota sufri ez dezaten beraien errealitatearekin oso antz txikia edo antzik ez duen familia errealitate bat planteatzen zaienean.

Duela urte batzuk arte familietan ezkontza gunea nahiko egonkorra zen. Eredu hori, ordea, aldatzen ari da, gizartea ere aldatzen ari den heinean. Hori horrela, guraso bakarreko familien kopurua hazi egin da, adopzioek gora egin dute, bikote homosexualak seme-alabak dituzte...

Gure gizartean aldaketa horiek guztiak gertatu badira ere, eskolan familia lantzeko orduan eredu bakartzat familia nuklearra hartzen da, eta zaharkitua gelditu den eta neurri batean baztertua den ikasmateriala erabiltzen da, gure ingurunea islatzen ez duena. Ume asko kanpoan uzten ditu, eta ondorioz, ume askok beren burua non kokatu ez jakiteko arriskua dute. Horrek guztiak segurtasun eza eta leialtasun gatazkak sorrarazten ditu eta gainerako ikaskideekiko ezberdin sentitzen dira. Gainera, autoezagutza pertsonalean zein sozialean problemak ekarri ditzake; norberak bere burua besteengandik desberdin ikusteak besteekiko harremanetan eragin negatiboa ekarri dezakeelako eta horrez gain norbere burua ez onartzea ere ekarri ahal duelako.

Horregatik, familia lantzeko orduan aldaketa bat proposatu nuen nik; ondo egituraturako ariketak proposatuz eta ikasleen parte-hartzea sustatzeko metodologia erabiliz. Ikasgelako haurrak ezaugarri zehatz batzuk dituzten familietako kide direlako lotsa ez daitezen eta familia eredu ezberdinak gure gizartea aberasten duten elementutzat har ditzaten, gizarte hau etengabe aldatzen ari den gizartea baita. Hortaz, aukeraturako

lagina nik proposatutako ariketak izango lirateke (ikus 2. eranskina) eta hauek banan banan kualitatiboki aztertzen joango naiz.

Gaia hasi aurretik, gaian sartzen joateko, aurrezagutzen fitxa (ikus 2.1. eranskina) bat aurkeztea ideia ona bururatu zitzaidan. Bertan ikasleek familia osatzen duten taldeak identifikatu behar zituzten. Horrela, irakasleak ikasleek zer dakiten jakiteaz gain, familia eredu tradizionala ez duten ikasleei beraien buruaz hausnartzeko eta ezagutzeko aukera azaltzen zaiela deritzot, beraien familia identifikatzen dutenean.

Hori egin ondoren eztabaida bat sortzea aproposa zelako iritzia nuen, nik galderak eginez familien inguruan mintzatzeko. Eta autoezagutzaren dimentsio ezberdinak aztertu ondoren, ideia ona izan zela uste dut, ikasle guztiek bere burua ondo ezagutu eta autoezagutzaren dimentsio ezberdinak garatu ditzaten, irakaslearen laguntza beharrezkoa baita. Hori horrela, eztabaida bat sortzea oso aproposa da, irakasleak eta umeez beraien familiez hitz egin dezaten, beraien familia osatzen duten kideak aipatu eta gaur egungo familia motak zeintzuk diren bata besteari kontatu diezaioten, bakoitzak bere egoera zein den azalduz. Hau guztiau eginik, ikasleen autoezagutza sozialaren parte den konpetentzia sozialean ere eragingo genieke ikasleei; gizarteko egoera batean zabaldu behar direlako eta besteen erreakzioa norberegana nola hautematen dituen aztertu ahal dutelako. Horrek, familia tradizionala ez duten ikasleek beraien egoera azaldu ez ezik, besteek egoera hori errespetatzea ere dakar. Familia eredu ezberdina duen ikasleen txarto sentitze horren desagerpena suposatu dezake horrek eta baita besteen jakintza handitzea ere, gaur egungo egoera errearen kontzientzia hartuz eta gure gizartean familia eredu ezberdinak egotea aberasgarritzat hartuz. Hortaz, irakasleak familia eredu guztiak baliagarri direla azpimarratu behar du eta eredurik ez du inoiz baztertu behar. Gaia elkarrizketa hutsean ez geratzeko, familia eredu ezberdinen ariketak gehitu nituen (ikus 2.4. eta 2.5. eranskinak).

Bikote homosexualak oraindik ez daude guztiz onartuta gizartean eta baliteke ikasleetako baten baten gurasoak homosexualak izatea. Horregatik, hezkuntzaren helburuetako bat eta hortaz, eskoletan burutu beharrezkoa izan beharko litzateke, haurrak aniztasunean heztea, alegia, heziketa adeitsua eta irekia eskaintzea afektibitatea eta sexualitatea bizitzeko era guztiekiko; homosexualitatea naturaltasunez bizitzen irakastea. Horrek guztiak haurrak ezberdintasunarekiko begirunean heztea ekarriko du eta denok irabaziko dugu, ez bakarrik guraso homosexualak dituzten haurrek.

Ariketa osagarrien artean zuhaitz genealogiko bat gehitzearen ideia izan nuen (ikus 2.3. eranskina). Baliteke honetaz mintzo garenean, ikasleren bat adoptatua izatea eta txarto sentitzea, bere familia biologikoa ezagutzen ez duelako eta bere familiazat adopzio familia duelako; hortaz, irakasleak azaldu behar du sentimenduek garrantzia handia dutela familia osatzen duten kideen artean, eta biologikoki familiakoak izango ez liratekeen horiek norbere benetako familia eta bakarra bilakatu daitezkeela. Irakasleak umeekin zintzotasunez jokatzea oso garrantzitsua da eta benetako errealitatea zein den azaldu beharko litzaieke. Gainera, denboraren poderioz familiak aldatuz joaten direla aipatzea esanguratsua dela deritzot, haurrak hasi egiten baitira, beste seme-alaba batzuk jaiotzen eta adoptatu egiten dira, kideren bat hil egiten da...

Familia gaiarekin jarraituz eta ikasleen motibazio pizteko igarkizun batzuk galdetu nitzkien haurrei (ikus 3. eranskina).

Aipatu beharrekoa da, autoezagutza akademikoari dagokionez, ingurune eskolarrean daudenez, ia momentu oro jorrotzen ari direla, ikasleek beraien jakintza zabaltzen dutelako eta honek beraien burua ikasle moduan hobeto ikusten lagundu diezaieketelako.

Familiakoekin eta lagunekin egin daitezkeen ekintzak lantzeko, liburuak ariketa batzuk proposatzen ditu. Garrantzitsua da umeak konturatzen joan daitezen jardura batzuk familiako kideekin egiten direla eta beste batzuk lagunekin. Horrez gain, irakasleak elkar maitatzea eta elkarri laguntzeak duen garrantzia umeei azaltzea positiboa izango litzateke beraien autoezagutza emozionala lantzeko. Horren ondoren, ni neuk proposatutako fitxetara jo ezker (ikus 2.6. eta 2.7. eranskinak), ikasleek etxean lagundu dezaketela eta egin behar dutela azpimarratzea irakasleak egin beharreko lana dela deritzot. Batetik, autoezagutza pertsonaleko autonomia landuko genuke eta bestetik gaitasun fisikoa ere, non ikasleek ikusi dezaketen kirola ez ezik, etxeko lanak egiteak eskatzen dituzten gaitasun eta ezaugarriak ere burutzeko gai direla. Gainera, etxeko lanetan etxean lagundu behar dutela barnera ditzaten, etxeko lan ezberdinak antzeztea proposatu nien ikasleei (ikus 3. eranskina).

Beraz, etxeko lanetan ikasleek nola laguntzen duten azalduko dute baina beraiek etxean zer egin dezaketen hausnartzea ere garrantzitsua da. Horrela, zer egiteko gai diren hausnartu dezakete eta etxean gehiago lagundu, autonomia sustatuz.

Bata besteekin etxean egiten dituzten lanak partekatzeak ere eragin positiboa izan dezake bata bestearengan. Izan ere, ume batek etxean mahaia jartzen laguntzen badu, adibidez, eta besteek ez, irakasleak galderen bitartez hausnartzera bultzatu diezaiekete autoezagutza sustatuz eta etxeko lanetan gehiago lagunduz. Umeek beraien ikaskideek egiten dituzten gauzak ere egin nahi dituztela kontuan izan behar dugu.

Haurrei beren abilezi eta ezaugarriak zeintzuk diren gogoraraztean, beraien buruarengan duten konfiantza handitu egiten diegu eta arazoei bakarrik aurre egiteko gai sentitzen dira. Hortaz, etxeko lanak beraien antzeztea autoezagutzarako oso erabilgarria izan daiteke. Era berean, haur bakoitzak gauzak ikasteko erritmo eta modu ezberdina duela adierazi behar zaie haurrei, baita egunero zerbait berria ikasten dugula ere.

Gaia hau lantzen denean Gabonak hurbil daudenez, hau ere lantzen da ikasleekin. Honi lotuta nik proposatutako ariketan (ikus 2.8. eranskina), ikasleei gehien gustatzen zaizkien gabon-gozokiak aipatu behar dituzte, bakoitzak bere gustuak azalduz autoezagutza pertsonala lantzen dutelarik.

Munduan Gabonak modu askotan ospatzen direla aipatu beharrekoa ere bada. Mundu guztian Gabonak ez dira urte sasoi berean ospatzen eta gainera ez ditugu denok modu berean bizitzen kulturak ezberdinak direlako, herri txiroenek ezin dituztelako gure moduan ospatu...

Umeek Gabonak opariek ere erlazionatu ohi dituzte baina irakasle eta etxekoen lana da nabarmentzea garrantzizkoena ez dela opari asko edukitzea, maitasuna eta etxekoekin gustura egotea gauza material asko edukitzea baino garrantzitsuagoa dela. Hori horrela, enpatia ere lantzeko, Olentzerori gutun bat idaztea proposatu nien ikasleei non familiako batentzat opari bat eskatzen duten (ikus 3. eranskina).

Unitate didaktikoa amaitutzat emateko, hiru ebaluazio fitxa sortu nituen (ikus 2.9., 2.10. eta 2.11. eranskinak), non aurretiaz landutako guztia erreparatzeko aukera izan zuten ikasleek, familia eredu ezberdinak barne.

Zubia Santillanako liburua erreparatuz gero, liburuko 59. orrialdean (ikus 1.10. eranskina) “zer lan egiten ditu kide bakoitzak etxean? Aita ama eta ni.” Agertzen da. Baliteke ikasgelan umeetako batek gurasoetako baten falta izatea edota bi ama izatea... eta txarto sentitzea horregatik. Aukera ezberdinen artean dago irakasleak beste aukerako

galdera proposatzea, adibidez: “zer gustatuko litzaizuke zure aitarekin/amarekin... egitea?”.

Liburuko galdera hori ikusi nuenean lehenengo pentsatu nuena izan zen ea ez zen egokiagoa izango “ama aita eta ni” jarri beharrean hutsuneak egotea eta bakoitzak bere familiako kide direnak idaztea. Baina autoezagutza eta norberestimazioaz irakurri ondoren eta hausnartu ondoren, horrelakoak izatea positiboa dela uste dut. Irakaslearentzat deserosoa izan daitekeen egoera bat sortu daitekeen arren, ikasleentzat ona izan daitekeela uste dut, errealitateaz hitz egiteko aukera ematen duelako eta umeekin zintzotasunez jokatzeko ezinbestekoa delako; beraien autoezagutza pertsonala lantzeko aukera ematen du eta baita ikaskideen jakintza zabaltzeko ere. Garrantzitsuena normaltasunez jokatzeko da eta ez larritasuna sentitzea ikasleekin gai horietaz hitz egin behar dugulako.

Espanian burututako Self Description Questionnaires (SDQ) galdeketen erantzunen faktore analisiak diotenez (González Pienda, 1996; Elexpuru eta Villa, 1992), autokontzeptuaren egitura gero eta konplexuago egiten da adinarekin eta gaztetasunean, eta ez lehenago, (12-14 urterekin) hasten dira ezberdintzen autokontzeptu soziala eta pertsonala. Hori horrela, autokontzeptu akademikoa eta fisikoa lantzen dira gehien haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako garaian, autoezagutza fisikoak adin txikiagokoetan garrantzia handia duelarik.

Familia ereduaren gaiak autoezagutza fisiko eta akademikoarekin erlazio handia ez duen arren, hauek beti landu daitezke era batera edo beste batera. Hala ere, gai honek haurren autoezagutza soziopertsonala besteak baino gehiago jorratzen dituela deritzot. Ikasleak autoezagutzaren parte hauen azpidimentsioen jabe oraindik ez diren arren, pixkanaka pixkanaka hauen lantzen joatea ere aproposa dela uste dut.

Ikasleen autoezagutza eta estimazioan izan dezakeen eragin positiboagatik, ikastolan erabiltzen den sentimenduen panela aipatzea garrantzitsua dela deritzot. San Fidel ikastolako lehen hezkuntzako ikasgela guztietan sentimenduen panela deritzen taula bat dute non ikasle bakoitzak bere sentimenduak bertan azaldu ditzakeen. Kartulina batean bost sentimendu eta aurpegi ezberdin agertzen dira: gozamena 😊, poza 😄, haserrea 😡, tristura 😞 eta beldurra 😱. Kartulina horretan, gainera, ikasle guztien argazkiak daude belkro batekin. Ikasleek edozein momentutan beraien argazkia hartu eta nola sentitzen

diren azaldu dezakete, beraien argazkia hartuz eta sentimenduaren aurpegiaren ondoan beraien argazkia jarriz.

Nire praktikak egin nituen lehenengo mailako ikasgelan oraindik ez ziren hasi sentimenduen panela erabiltzen baina nire aburuz ideia ona izango litzateke umeez txikitatik hauek erabiltzen ikastea, horrek sentimenduak adierazteko gaitasuna ekarriko lukeelako berarekin eta baita autoezagutza soziopertsonala ere. Gainera, besteen sentimendu eta emozioak ezagutzeko enpatia ere garatuko da haurrengan.

Sentimenduak adierazteko gaitasuna funtsezkoa da gure burua ezagutzeko eta ezagutza ziurra ematen du sentimenduak adierazteko orduan. Horrez gain, emozioak kontrolatzen ikasteak tentsio desatseginetatik askatzea ekarri dezake, eta egoera latzei aurre egiteko eta konpontzeko gaitasuna igo egiten da, autoezagutza soziala sustatzen duen era beran.

Beren emozioak maneiatzen azkar ikasten duten haurrek emaitza hobeak lortzen dituzte eskolan eta beraz, zuzenean ez baina haurren autoezagutza akademikoan eragina izango du. Irakasleak, bere aldetik, ikasketa emozionala ikasleengan garatu eta ahalbidetu ahal izateko, ikasleen planifikazioa, erantzukizuna eta balorazioa eskatzen dituen metodologia eskaini behar du ikasgelan.

Maitasungramaren erabilerak ere eragin positiboa ekarri dezake ikasleen autoezagutza eta autoestiman. Bertan, haurretako bakoitzak klase-kide bati edo gehiagori zerbait positiboa esan behar dio. Horrela, besteen ezaugarri positiboak eta norberarenak identifikatzen ikasiko baitute ikasleek.

Norbaiti autokontzeptua zein autoestima hobetzen laguntzeko, arrakastarako eta aldeko emaitzak eskuratzeko aukerak erraztu behar dizkiogu (porrotak jasotzearenak gutxituz). Hala ere, kontuan izan behar da arrakastak beti ez daramala lotuta autoestima positiboa. Izan ere, autokontzeptua eta autoestima ez dira mugatzen besteek adierazitako isla izatera, baizik eta bakoitzari gertaturikoa interpretatzeko erabilitako irizpideen baitan dago. Garrantzitsua da zer gertatzen zaigun bizitzan, besteek zein iritzi duten gutaz; baina are gehiago gure arrakasta eta porrotak nola interpretatzen ditugun, gure ustez besteek nola ikusten gaituzten; garrantzitsua ez da zer gertatu zitzagun bizitzan, nola kontatzen dugun baizik.

Autoezagutza pertsonaren izaera garatzeko ezinbestekoa da; pertsonalki, sozialki eta profesionalki ondo funtzionatzeko, autokontzeptu positiboa izan behar dugu oinarri.

Horrek guztiorrek gogobetetasun pertsonala eta norbere buruarekin ondo sentitzea ekarriko du.

Haur bakoitza den moduan errespetatu behar da eta den bezalakoa izaten utzi. Horrela, segurtasuna eta autoestima finkatuko ditu. Ingurukoei axola dietela sentiaraztea ere oso garrantzitsua da autoestima positiboa garatu ahal izateko. Gainera, oso aproposa da umeei maitasuna, errespetua eta onarpena adieraztea. Argi utzi behar dugu denok dugula harro egoteko moduko ezaugarriren bat, denok sartu ohi dugula hanka inoiz; ulertu egin behar dugula akatsak egiteak ikasteko aukera berri bat ematen digula eta beraz, buruari akatsak izateko eskubidea eman behar diogu. Irakasleak ezin du ahaztu gauza atseginak, gogokoak eta esatea merezi dutenak aipatzea eta zerbait txarto eginda dagoela uste duenean, ekintza kritikatzeko da egokiena eta ez pertsona.

Irakasle izatea eta haurrekin behar bezala jokatzeko erraza dirudien arren, hainbat eta hainbat gauza eduki behar dira kontuan. Baina nire aburuz, maitasunez eta errespetuz egindako lan orok du emaitza positiboa. Eta beraz, ikasleek erakutsiko dituzten emaitzak, bai akademikoak, pertsonalak, fisikoak eta sozialak, onak izango direlako ustea dut. “Onak” norberarentzat positiboak eta besteekiko errespetuzkoak modura ulertuz.

#### **4. Emaitzak eta ondorioak**

Unitate didaktikoa hobetzeko ariketak egin nituenean, ez nuen autoezagutza kontuan izan. Hala ere, autoezagutzaren garrantzia ikusirik eta umeekin lantzeak izan ditzakeen eragin positiboa ikusirik, eskolan lantzea oso garrantzitsua dela deritzot. Horregatik, nik proposatutako ariketa hauek aztertu eta autoezagutzaren ikuspegitik zein azpidimentsio lantzen den eta zen lantzen ez den erreflexionatu dut.

Nire iritziz, nik sortutako materialen autoezagutza soziala, pertsonala eta akademikoa lantzen diren arren, ikasleengan autoezagutza fisiko positiboa garatzerakoan gabezia dago. Eta autoezagutzaren aspektu hau da, batez ere, adin hauetan garrantzia gehien hartzen duena.



Ikasleengan autoezagutza fisikoa garatu ahal izateko, beraien burua dakiten zerbait egiten marraztea proposatuko nieke. Adibidez, etxeko lanak burutzen. Horrela, norbere buruaren kontzeptu argi bat lortzen laguntzeaz gain, norbere buruaren kontzeptu erreal bat lortzen lagunduko die eta gainera, norbere ezaugarri eta baliabideak baloratzen ere lagundu diezaieke. Garrantzia handia dauka hurrek errealitatera egokitutako beraien irudi edo kontzeptu bat edukitzea. Gainera, marrazten dutenaren bitartez irakasleak asko ikasi dezake beraiengan eta beraiek ere beraien buruez asko ikasi dezaketela deritzot. Umeen lanak aztertu, arazoren bat baldin badago detektatu eta irakasleak esku har dezake.

Umeentzako erakargarria izan daitekeen beste ariketa bat, lehen hezkuntzako lehenengo mailakoak direla kontuan hartuz eta familia gaia lantzen ari direla kontuan hartuz, plastilinaz edo beste material batzuek hurrek beraien familiak aurkeztea izango litzateke. Horrez gain, pertsonaia horiek zergatik diren familiakoak ere azaldu beharko lukete. Honela, autoezagutza soziala eta pertsonala lantzeaz gain, autoezagutza fisikoa ere landuko genuke, oso gutxi bada ere. Izan ere, beraien burua ere marraztu beharko lukete familiaren partaide gisa. Gainera, umeekin material ezberdinak erabiltzea eta hauek eskuekin moldatu behar izatea oso aproposa da haur hezkuntzan zein lehen hezkuntzan.

Lan honetan burututakoa erreflexio bat da. Eta nire aburuz, hurrengo lan batean autoezagutza fisikoa lantzeko ariketa batzuk proposatu ondoren, azterketa kuantitatiboago bat egitea erakargarria izango litzatekeela deritzot. Horrela, egindako hausnarketa hauek errealitatean ematen diren egiaztatze aukera izateko.

## 5. Erreferentzia bibliografikoak

Arribillaga, A. & Cuesta, R. (2006). *Errespetua lantzeko proposamena*. Vitoria-Gasteiz.

Castro, J. M. (2007). *Zer baldintza behar dira ikasleek gustura ikasteko?* Donostia.

2013-03-05ean hartuta, hemendik:

<http://www.hikhasi.com/artikulu/1412>

Coll, C., Marchesi, A. & Palacios, J. (2008). *Desarrollo psicológico y educación*.

Madrid: Alianza.

Emerick, L. (1992). *Academic underachievement among the gifted: Student's Perceptions of factors that reverse the pattern*. Vol 36 (140-146 o.). USA. 2013-02-

14an hartuta, hemendik:

[http://scholar.google.es/scholar?q=Emerick%2CL.+%281992%29.+Academic+und+erachievement+among+the+gifted&hl=es&as\\_sdt=0%2C5&as\\_vis=1](http://scholar.google.es/scholar?q=Emerick%2CL.+%281992%29.+Academic+und+erachievement+among+the+gifted&hl=es&as_sdt=0%2C5&as_vis=1)

Fernández, A. & Rodríguez, A. (2007). *Autoconcepto: social, físico y general*. Vitoria-

Gasteiz. 2013-02-14an hartuta, hemendik:

<http://www.psikor.es/index.php/publicaciones/articulos>

González, O. (2011). *La presión sociocultural percibida sobre el autoconcepto físico:*

*naturaleza, medida y variabilidad*. Vitoria-Gasteiz. 2013-02-15ean hartuta, hemendik:

[http://www.ehu.es/argitalpenak/images/stories/tesis/Ciencias\\_Sociales/GONZALEZ%20FERNANDEZ%20OSCAR.pdf](http://www.ehu.es/argitalpenak/images/stories/tesis/Ciencias_Sociales/GONZALEZ%20FERNANDEZ%20OSCAR.pdf)

González, O. & Goñi, E. (2005). *Dimensiones del autoconcepto social*. Donostia. 2013-

02-13an hartuta, hemendik:

<http://www.psikor.es/index.php/publicaciones/articulos>

Goñi, A. (2009a). *Eating disorders, sport practice and physical self-concept in adolescents*. Donostia. 2013-02-12an hartuta, hemendik:

<http://www.psikor.es/index.php/publicaciones/articulos>

Goñi, A. (2009b). *Zer egin daiteke eskolan*. Bilbo. 2013-03-05ean hartuta, hemendik:

<http://www.hikhasi.com/artikulu/1666>

Goñi, A. (2009c). *Zer egin daiteke eskolan ikasleen autokontzeptu fisikoa lantzeko?* Vitoria-Gasteiz. 2013-02-10ean hartuta, hemendik:

<http://www.psikor.es/index.php/publicaciones/articulos>

Goñi, A., Zulaika, L., Rodríguez, A., Esnaola, I., Infante, G., Iturriaga, G., Ruiz de Azúa, S., Goñi, E., Fernández, A. & Axpe, I. (2007). *Pozik zure itxurarekin?*. Vitoria-Gasteiz: Caja Vital kutxa.

Goñi, E. & Ruiz de Azúa, S. (2005). *La estructura del autoconcepto personal*. Vitoria-Gasteiz. 2013-02-10ean hartuta, hemendik:

<http://www.psikor.es/index.php/publicaciones/articulos>

Lasa, A. (1997). *Adimena eta autoestimua irakaslearen zeregina*. Vitoria-Gasteiz. 2013-03-05ean hartuta, hemendik:

<http://www.hikhasi.com/artikulu/300>

López, F. (2008). Necesidades emocionales y sociales. López, F. (ed.) *Necesidades en la infancia y en la adolescencia* (109-130 o.). Madril: Piramide.

Moncayo, J. (2008). *El autoconcepto y la autoestima, factores decisivos en el aprendizaje*. Granada. 2013-02-15an hartuta, hemendik:

[http://www.csicsif.es/andalucia/modules/mod\\_ense/revista/pdf/Numero\\_13/JOSE\\_C\\_MONCAYO\\_1.pdf](http://www.csicsif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_13/JOSE_C_MONCAYO_1.pdf)

Palacios, S., Zulaika, L. M., Goñi, A., Madariaga, J. M., & Ruiz de Azúa, S. (2002). *El atractivo físico y la satisfacción personal*. Vitoria-Gasteiz. 2013-02-12an hartuta, hemendik:

<http://www.psikor.es/index.php/publicaciones/articulos>

Pomar, C. & Díaz, O. (2011). *Desmotivación académica del alumno superdotado*. Santiago de Compostela. 2013-02-12an hartuta, hemendik:

<http://revistas.ucm.es/index.php/FAIS/article/view/FAIS9898110117A/7900>

ERANSKINAK

1. eranskina: Zubia Santillanako "Familian bizi gara" unitate didaktikoa




1.1. eranskina. Liburuko 50.orrialdea




## Ikusi eta ikasi

5. unitatea

① Zein talde da familia bat? Adierazi.




② Behatu irudiari eta jarri eranskailuak dagozkien tokian.



aitona-  
amonak





gurusoak




seme-  
alabak

③ Margotu Gabonekin zerikusia duten elementuak.



## Familia bat dugu


① Behatu Mirenen familia-zuhaitzari eta osatu.



Miren hauen alaba da:


Hauen biloba da:

② Ordenatu eta azaldu zer aldaketa izan diren Mirenen familian.





3 Irakurri eta idatzi Mirenen abizenak.



Miren

4 Idatzi izenak eta abizenak.

Aita

Ama

Ni

5 Zer seniderekin bizi zara? Idatzi.

Hauekin bizi naiz: ni/ie

Denok dugu familia bat.

## Familiako bizitza

Familia bat osatzen duten pertsonak elkar maite, zaindu eta laguntzen dute. Halaber, elkarrekin ondo pasatzen dute.



① Zer jarduera egiten dituzu zure familiarekin? Eta zure lagunekin? Hautatu eta idatzi.

ikasi

bidaiatu

telebista ikusi

jolastu

afaldu

eskolara joan

Nire familiarekin:

Nire lagunekin:


② Nola laguntzen duzu etxeko lanetan? Inguratu.




• Esan beste zenbait lan eta nork egiten dituen zurean.

3 Nola ospatzen dituzu Gabonak familiarekin? Adierazi.

- Zuhaitza apaintzen dugu.
- Bidaia bat egiten dugu.
- Elkarrekin jaten dugu.
- Olentzero ikustera joaten gara.



4 Behatu Gabonetako jaiegunen datai eta osatu. Ondoren, azaldu zer gauza berezi egiten dituzun egun hauetan.



Abenduaren 24an,

Abenduaren 31n,

Urtarrilaren 6an,


Familiako kideak elkarrekin bizi dira, elkarri laguntzen diote eta jaiak ospatzeko biltzen dira.

## Irakurri eta ikasi

### Gabon desberdinak

Gabonak urteko azken hilean izaten dira mundu osoan. Gure inguruan negua da eta toki batzuetan, elurra egiten du. Beste inguru batzuetan, ordea, Gabonak udan izaten dira.

Imajinatzen duzu Urtezahar-gauean itsasoan bainatu ahal izatea?



① Idatzi Z (zuzena) edo O (okerra).

- Gabonak urteko azken hilean izaten dira.
- Gabonak neguan izaten dira mundu osoan.
- Hemen, Gabonak neguan izaten dira.

② Gabonetako zer gauza dituzu gustukoan? Idatzi.



|  |
|--|
|  |
|  |
|  |
|  |
|  |

## Nire gaitasunak hobetzen ditut

5. unitatea

Jaiotza prestatzen


Etxe askotan, jaiotza jartzen da Gabonetan. Aurten zuk egin nahiko zenuke?



① Nork osatzen zuten jaiotzako familia? Idatzi.

|  |
|--|
|  |
|  |

② Inguratu jaiotzarako beste sei iruditsco.



③ Non jarriko duzu jaiotza?

|  |
|--|
|  |
|  |

④ Nork laguntzea nahi zenuke? Adierazi.

- Gurasoek.  Aitona-amonek.  Osaba-izebek.  
 Lagun batek.  Neba-arrebek.  Inork ez.

## Berrikusi eta jardun

1 Nor dira? Behatu eta idatzi.

aitona

aita

alaba

biloba




eta haren \_\_\_\_\_ dira.


\_\_\_\_\_ dira.



2 Margotu neba-arrebak diren haurreak.



Aitziber  
Atxa naiz.



Alaia Orena  
naiz.

Igor Atxa  
naiz.



3 Idatzi zure aitona-amonen izena.

Aitaldeko  
aitona-amonak

\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

Amaldeko  
aitona-amonak

\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

④ Zer dute berdin familia bateko kideak?

Adierazi.

Abizen bera dute.

Denek adin bera dute.

Antzeko ezaugarri fisikoak dituzte.

Gustu eta zaletasun berak dituzte.

⑤ Zer lan egiten ditu kide bakoitzak etxean? Idatzi.

Aita

|  |
|--|
|  |
|  |


Ama

|  |
|--|
|  |
|  |

Ni

|  |
|--|
|  |
|  |

⑥ Nola ospatzen dituzue Gabonak ikastetxean? Adierazi eta azaldu.






2. eranskina: "Familian bizi gara" unitate didaktikoaren ariketa osagarriak

2.1. eranskina. Aurrezagutzen fitxa

Izena:.....Zenbakia:.....

● Zein talde da familia bat?





Familian

bizi gara


Izena:.....

Zenbakia:.....

FITXAK

2.3. eranskina. Lehenengo fitxa

Zuhaitz genealogikoa



● Behatu zuhaitzari, eta osatu esaldiak:

Teoren ama                      da.



Teo eta                      anai-arrebak dira.

Teoren osaba                      da.

## Familia eredu ezberdinak



- Idatzi familia bakoitzari dagokien zenbakia.




- Ibon gurasoekin eta aitona-amonekin bizi da.
- Ikerz amarekin eta anaiarekin bizi da.
- Pauke aitarekin bizi da.
- Ane gurasoekin, neba-woelbekin eta aitona-amonekin bizi da.

2.5. eranskina. Hirugarren fitxa

● Hona hemen Mikelen lagunen familiak.  
Lotu:

Helena aitarekin eta  
nebarekin bizi da.




Joana amarekin eta  
amonarekin bizi da.




Maider gurasoekin,  
nebarekin eta aitona-  
amonekin bizi da.



Peru gurasoekin eta  
aitona-amonekin bizi  
da.



Koldo gurasoekin eta  
neba-arrebekin bizi da.





2.6. eranskina. Laugarren fitxa

● Idatzi zenbakiak:



Nire familiarekin egiten dut.

Nire lagunekin egiten dut.

Nire familiarekin eta nire lagunekin egiten dut.



● Zer egin dezakezu zuk etxean?



Gehiago:.....

## Ohitura onak

- Irakurri eta aurkitu esaldia.

Etxean gurea asko egin behar dira:  
jatekoak prestatu, garbitu, hantza kendu,  
ohea egin... Pertsona batek egin behar  
badu guztia, azkenean oso nekatuta egongo  
da. Hori ez gertatzeko, konponbidea  
aurkitu behar duzu.

Pistak: ★ → E; ▲ → A; ■ → O; ● → U; ◆ → I

★ TX ★ K ■

▲ N ★ T ▲ N


● Z T ◆ ■ K

▲ G ● ND ●

B ★ H ▲ R


D ● G ● .

## Gabonetako gozokiak



- Idazteko asko gustatzen zaizkizun hiru gabon-gozokiren izenak; gero marraztu gozokiak.

|  |
|--|
|  |
|  |
|  |
|  |
|  |
|  |
|  |
|  |



2.9. eranskina. Lehenengo ebaluazio fitxa

Izena:.....Zenbakia:.....

● Norak erom du? Pentzatu eta lotu.

Julen nire biloba da.

Julen nire semea da.

Julen nire neba da.

Julenen arreba.

Julenen amona.

Julenen aita.

● Margotu familia bateko kideen izenak adierazten dituzten hitzak.

izeba    bizilaguna    laguna    biloba    lehengusua

● Idatzi Eleneren nebaren izena eta abizenak.

Nire izena Elene Mitxelena Landa da.





Izena

Abizenak



2.10. eranskina. Bigarren ebaluazio fitxa

● Zein talde da familia bat?



2. ebaluazio fitxa

2.11. eranskina. Hirugarren ebaluazio fitxa

- Eran osaldi hauek egia edo gezurra diren:
  - Urtebetetzea lagunekin ospatzen dute, familiarekin ez. ....
  - Gabonak familiarekin ospatzen dituzte. ....
  - Etxeko lanetan umek ezin dezakete ezertan lagundu. ....
  - Etxeko lanetan gutxiok lagundu behar dugu. ....

● Zue jaiegun ospatzen dira eguberrietan?  
Aukeratu eta idatzi.

Gabon-gaua      Erroge-eguna      Urtezahar-gaua

|                        |  |
|------------------------|--|
| ABENDUAK<br><b>24</b>  |  |
| ABENDUAK<br><b>31</b>  |  |
| URTARRILAK<br><b>6</b> |  |

### 3. eranskina: Gaia klasean lantzeko planifikazioa

#### **1.EGUNA**

Gaiaren izena arbelean idatzi (“Familian bizi gara”), ikasleek gaia familiaren ingurukoa izango dela jakin dezaten. Liburuko irudia komentatzen hasi aurretik, ikasleen aurrezagutzak zeintzuk diren jakiteko ***aurrezagutzen fitxa*** banatu ikasleei, familia eredu ezberdinen ingurukoa, ea beraientzat ama eta alaba bat, adibidez, familia bat diren jakiteko.

Horrez gain, galdera batzuen bitartez ere ***eztabaida*** bat sortuko dugu klasean, hainbat galdera formulatuz: Zer da zuentzako familia? Zenbat pertsonak osatzen dute familia? Zenbat kide behar dira gutxienez familia osatzeko? Ama gabe badago familiarik? Eta seme-alabarik gabe? Gurasorik gabe bizi den norbaitek familia osatzen al du? ...

Ondoren, liburua ireki eta ***50.orrialdeko*** irudia aztertuko dute ikasleek eta bertan dauden galderak erantzunez beste eztabaida txiki bat sortuko dugu. Ikasleei lagundu egingo diegu irudiko pertsonaiekin eta egoerarekin identifikatzen, haien familiekin eta haiek egiten dituzten ospakizunekin alderatuz.

Irudia lantzean, alderdi ezberdinak landu daitezke. Adibidez, tokiari dagokionez, eskatu ikasleei egongela-jangela batean egoten diren ohiko objektuak izendatzeko eta irudian bilatzeko. Irudian dauden apaingarriak bereizi eta zergatik dauden hor ere galdetu dezakegu. Pertsonaia eta posizioei dagokienez, familiako kideen identifikazioa landu dezakegu galderen bitartez: Nor da bizkarrez dagoen emakumea, haurren ama edo amama? Eta emakume horren parean eserita dagoen gizona? Eta abar. Ezaugarri fisikoei dagokionez, adinari buruzko alderaketak egin ditzakete ikasleek: Emakumeetatik zein izango da nagusiena? Nola dakizu? Ekintzari dagokionez galdetu ikasleei irudiko pertsonaiak zer egiten ari diren deskribatzeko eta horretarako zer objektu erabiltzen dituzten azaltzeko. Galdetu zein ospakizun den irudian agertzen dena eta azal dezatela eurek nola ospatzen dituzten gabonak haien familiekin eta zer beste ospakizun egiten dituzten urtean zehar (urtebetetzeak, aitaren edo amaren eguna...). Baliteke haurren batek gabonak ez ospatzea haren familia kristaua ez delako. Proposatu ikasle horiei beraien familiako jaiak aipatu eta deskribatzeko. Bide batez, adierazi sinesmen guztiek merezi dutela errespetu bera.

Irudia komentatu ostean, ***51.orrialdeko ariketak*** egingo dituzte ikasleek.

## 2.EGUNA

Ikasleei galdetuko diegu beraien familiakoei buruz: Zuen familiako zenbat pertsona bizi dira zuen etxean? Ba al duzue neba arrebarik? Zenbat? Ba al dute neba arrebarik zuen gurasoek? Nola deitzen diezue? Zenbat aitona-amona dituzue?...

**52.orrialdeko lehenengo ariketa** egiten hasi **aurretik**, ikasleei azaldu zuhaitz genealogiko bat zer den, familia bat modu grafikoan adierazten duen eskema dela. Liburuko zuhaitz genealogikoa oinarritzat hartuz, adierazi zein den amaren familiari dagokion zatia (eskuinekoa) eta zein aitaren familiari dagokion zatia (ezkerrekoa). Azpimarratu familiako kide zaharrenak goiko aldean jartzen direla, eta gazteenak, berriz, beheko aldean.

Azaldu pertsona bakoitzak ahaidetasun harreman bat baino gehiago dituela. Haur bat, adibidez, gurasoen semea edo alaba da, neba-arreben neba/anaia edo arreba/ahizpa, eta aitona-amonen biloba.

Aipatu familiak aldatuz joaten direla denboraren poderioz, haurrak hazi egiten dira, beste seme-alaba batzuk jaio edo adoptatu egiten direla, kideren bat hil egiten da...)

Adierazi baita ere, gurasoek erabakitzen dutela gure izena zein izango den baina abizenak gurasoen berdinak izan behar direla.

Hau guztia azaldu ondoren, **52.orrialdeko ariketak egingo** dituzte.

Bigarren ariketa egiterakoan lehenengo zer egoera gertatzen den identifikatu ondoren, eskatu ikasleei adierazteko zer pertsona falta den bigarrean, eta zergatik ez dagoen. Horrez gain, galdetu ea badagoen lehenengo irudian agertzen ez den norbait bigarrean. Amaitzeko eskatu aztertzeke zer aldaketa gertatu diren familiako gainerako kideengan.

Gehiago sakontzeko, **1.fitxa** egingo dute hori bukatzean.

Jarraitzeko, eta ikasleak motibatzeke, **igarkizun** batzuk galdetuko dizkiegu ikasleei:

- Pertsona bat da, hain da ona! Ez digu ezer eskatzen eta eman egiten digu... dena.  
*Ama da*
- Bi ama eta hiru alaba mantu bana soinean doaz mezatarara.  
*Ama, alaba eta amona*

- Bi ahizpa, ez da gezurra, bata izeba dut, bestea ez dut izeba. Nor du?

*Ama*

Amaitutakoan, **53. orrialdeko ariketak** egingo ditugu.

Hirugarren ariketan, ikasleei azalduko diegu kultura askotan, pertsonak abizen bakarrik edukitzen dutela, amaren edo aitaren abizena, hain zuzen. Adierazi, bestalde, gaur egun gure herrialdean gurasoek erabaki dezaketela seme-alaben abizenen ordena. Arbelean idatzi beste aita eta ama batzuen izen-abizenak, ikasleek hain seme-alaben izenak osatzen dituzten.

### **3. EGUNA**

54. orrialdeko ariketak egiten hasi aurretik, ikasleei azalduko diegu hainbat eratako familiak daudela, familia eredu ezberdinak daudela eta familia bat ez dela bakarrik “ama, aita eta seme-alabez” osatuta dagoena. Hau guztia azaldu ostean (aurrezagutzen laguntzaz jakingo dugu honen inguruan ikasleek zer dakiten), **2. fitxa** eta **3. fitxa** egingo ditugu.

Familia bat nortzuk osatu dezaketen argitu ondoren, **54. orrialdean agertzen den testua** irakurriko dute ozen eta gero galdetuko diegu: Zer egiten dute familia bat osatzen duten pertsonak? Irakurtzen dutenean arreta jartzen eta ulertzen ikasi dezaten. Azaldu ikasleei elkar maitatzea eta elkarri laguntzea familiako bizitzaren bi ezaugarri direla. Horregatik, eskatu ikasleei beren familiako norbaitek maitatu dituela edo lagundu diela sentitu duten une bat adierazteko. Era berean, eskatu azaltzeko nola laguntzen dieten edo nola adierazten dieten maitasuna gurasoei, neba-arrebei, aitona-amonei...

Ondoren, **54. orrialdeko lehenengo ariketa** egingo dugu. Bertan azalduko diegu ariketa batzuk lagunekin egiten direla eta beste batzuk, berriz, familiako kideekin. Adierazi familiarekin egiten diren jardueretako asko etxean egiten direla (jatea, telebista ikustea, jostailuak jasotzea...) eta beste batzuk etxetik kanpo (bidaiatzea, zinemara joatea...). Guzti honekin jarraituz, **4. fitxako lehenengo ariketa** ere egingo dute ikasleek.

Jarraian, **5. fitxa** egingo dugu. Elkarrekin irakurriko dugu, ozen, proposatutako testua eta segidan, bakarka eta isilik irakurriko dute. Lortutako mezutik abiatuta, elkarrizketa hasiko dugu, ikasleek etxean zer lan egiten dituzten esango dute, lan horiek laguntzarekin edo bakarrik egiten dituzten eta nola laguntzen duten etxeko lanetan. Era

berean, galdetu egingo diegu ea orain egiten ez dituzten lanetatik zeinetan uste duten lagun dezaketela. Liburuko **54.orrialdeko bigarren ariketa eta 4.fitxako bigarren ariketa** egingo dituzte ikasleek eta azpimarratuko diegu, 5.fitxan ikasi duten bezala, beharrezkoa dela familiako kide guztiek, hurrek barne, etxeko lanetan parte hartzea.

Etxeko lan ezberdinak arbelean zerrendatuko dituzte denen artean eta hirunaka arbelera irtengo dira etxe lan ezberdinak **antzeztera**. Gainontzeko ikaskideek antzezten dauden egoera zein den asmatu beharko dute. Adibidez, ohea egin, erratza pasatu, hautsa kendu, mahaia ipini, mahaia jaso, arropa eskegi, jostailuak jaso eta abar.

**55.orrialdeko ariketekin** hasiko gara. 3.ariketan, ikasleek bertan agertzen diren ekintzez gain zein beste ekintza egiten dituzten bere familiarekin azalduko dute.

4.ariketa egin ostean, egutegi batean kokatuko ditugu ariketan adierazitako Gabonetako jaiegunak. Galdera hauek egingo dizkiegu ikasleei: Zer jaiegun ospatzen da aurretik, Gabon-gaua edo Urtezahar-gaua? Zer jaiegun ospatzen da Urtezahar-gauaren ondoren?

Hau guztia amaitutakoan, **elkarrizketa** bat egingo dugu hurrek hurrengo galderari erantzun diezaieten: nork ekartzen dizkizu opariak Gabonetan? Olentzerok ala Errege Magoek? Hemen nabarmendu egin behar diegu garrantzizkoena ez dela opari asko edukitzea, maitasuna eta etxekoekin gustura egotea gauza material asko edukitzea baino garrantzikoagoa dela. Olentzero edo Errege Magoei beraien gurasoentzako zer eskatuko luketen, eta zergatik, ere galdetuko diegu ikasleei. Horrela enpatia sustatuko dugu.

Ondoren, **6.fitxa** egingo dute ikasleek eta Gabonetan jaten diren jakien inguruan eztabaidatuko dugu denon artean.

#### **4.EGUNA**

Liburuko **56.orrialdeko testua** irakurtzen hasi **aurretik**, irudiei buruzko galderak egingo ditu irakasleak: Zer urte sasotakoa da lehenengo argazkia? Eta bigarrena? Zergatik daramatzate Bizarzuriren txanoak bigarren irudiko hurrek?... Arbelean idatziko dugu: “Munduan modu ugarritan ospatzen dituzte Gabonak familiek.”

**Testua irakurri** ondoren, Lurra marraztuko dugu arbelean, edota ikasgelan munduko bola bat egonez gero hura erabiliko dugu, eta ekuatorea marra nabarmen baten bidez markatuko du irakasleak. Ondoren, Ipar hemisferioa eta hego hemisferioa ezberdintzen direla azalduko zaie ikasleei eta kokapenaren arabera eguraldia ezberdina dela.

Adibidez, Euskal Herria eta Argentina. Abenduan, Euskal Herrian (Ipar hemisferioan) negua da eta Argentinan (Hego hemisferioan), aldiz, uda dela. Horregatik, guk neguan ospatzen ditugu Gabonak eta beste herrialde batzuetan bizi direnek, udan.

Hau guztia azaldu ostean, orrialde horretako *lehenengo eta bigarren ariketak* egingo dituzte.

**57.orrialdera** pasatuko gara eta bertako ariketak ere egingo ditugu, jaiotzaren ingurukoak. *Lehenengo ariketa* egin eta gero *igarkizun* bat galdetuko dizkiegu ikasleei, hauek motibatzeke:

- Belenen jaio nintzen eta Erregeak ikusi nituen. Artzainek ekarri zidaten zenbat nahi opari.

*Jesus haurtxoa da.*

Ondoren, *bigarren ariketarekin* jarraituko dute ikasleek. Baina bertako galderari erantzun aurretik, haurrek ahoz identifikatu beharko dute irudi bakoitza, eta egindako hautaketa argudiatu.

Ariketak egiten jarraituko dute eta laugarren ariketak eztabaida txiki bat sortu dezakegu galdetuz ea beraien etxean jaiotza jarri baldin badute dagoeneko, etxeko zein tokitan jartzen duten jaiotza, nola lagundu/lagunduko duten lan horretan, zer material erabili/erabiliko dituzten, zer iruditxo duten gustukoen...

Ikasleak motibatzeke eta familiakoei zein lagunen bati opari bat egin diezaieten, *Gabon-txartel* bat egitea proposatuko diegu ikasleei, erditik tolesturiko koloreetako orrietan. Kanpoko aldean Gabonetako irudi bat marraztuko dute, eta barruko aldean Gabonetako zorion-txartela idatziko dute.

## **5.EGUNA**

Egun honetan liburuko **58 eta 59.orrialdeak** egingo ditugu, unitatearen errepassoa. Bigarren ariketa ebatzi ondoren, ikasleei galdetuko zaie ea zein datuk lagundu dieten ariketa ebazten. Antzekotasun fisikoak, haurren abizenak...?. Hirugarren ariketa egin aurretik azalduko diegu aitaldeko terminoak aitari egiten diola erreferentzia, eta amaldeko terminoak, berriz, amari.

Ariketak amaitzen dituztenean, ***Olentzerori gutun bat idatzi beharko diote familiako batentzat*** opari bat eskatzeko. Gogorarazi gutunaren amaieran izen-abizenak idatzi beharko dituztela sinatzeko. Ondoren, ozen esan beharko dute banan-banan norentzat eskatu duten oparia, eta zer opari eskatu duten harentzat.

## **6.EGUNA**

Azken egun honetan, hiru ***ebaluazio fitxak*** bete beharko dituzte, ahal izanez gero beraien kabuz. Hala ere, irakasleak ariketak banan-banan azalduko ditu aldezturik.